18

Materiales educativos

ALBOAN



# Los Mandalas de los Objetivos de Desarrollo del Milenio

# Milurtekoko Garapen Helburuen Mandalak

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA
Gizarte Gaietako Saiburuordetza
*Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza*
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES
Viceconsejería de Asuntos Sociales
*Dirección de Cooperación al Desarrollo*

Objetivos de Desarrollo del Milenio
Milurtekoko Garapen Helburuak

Esta publicación forma parte de una colección de diferentes materiales educativos sobre los Objetivos de Desarrollo del Milenio. Si tienes interés en profundizar en este tema disponemos también de otros materiales complementarios (comics, posters, cuadernos de profundización...) que los puedes solicitar en cualquiera de nuestras oficinas o en nuestra página web.

Argitalpen hau Milurtekoko Garapen Helburuei buruzko hezkuntza-materiala ezberdinaz osatutako bilduma baten zati da. Gai honen inguruan sakondu nahi izanez gero bestelako material osagarria ere badugu (sakontzeko koadernoak, komikiak, posterrak...) eskaria gure bulegotan zein gure web orrian egin dezakezu.

## Materiales educativos ALBOAN

**12.** Las mujeres también vuelan. (2008)

**13.** La tierra: planeta peligroso para la infancia. (2008)

**14.** ¡A tu salud, mujer! (2008)

**15.** Josephine: la cara de la muerte en África. (2008)

**16.** Neiraô, un hijo de la tierra. (2008)

**17.** El tren del desarrollo. (2008)

**18.** Los Mandalas de los Objetivos de Desarrollo del Milenio. (2008)

## Hezkuntza baliabideak ALBOAN

12. Emakumeok ere hegalari. (2008)

13. Lurra: planeta arriskutusa haurtzaroarentzat. (2008)

14. Zure osasunerako, emakume! (2008)

15. Josephine: Afrikan heriotzaren aurpegia. (2008)

16. Lurraren seme-alabak. (2008)

17. Garapenaren trena. (2008)

18. Milurtekoko Garapen Helburuen Mandalak. (2008)

# Los Mandalas de los Objetivos de Desarrollo del Milenio

# Milurtekoko Garapen Helburuen Mandalak

Edita • Argitaratzailea:

ALBOAN

Padre Lojendio 2, 2º • 48008 Bilbao
Tel.: 944 151 135 • Fax: 944 161 938
alboanbi@alboan.org

Avenida Barañain 2 • 31011 Pamplona
Tel.: 948 231 302 • Fax: 948 264 308
alboanna@alboan.org

C/ Ronda 7, 4º I • 20001 San Sebastián
Tel.: 943 275 173 • Fax: 943 320 267
alboangi@alboan.org

www.alboan.org

Autoría • Egilea: ALBOAN

Fecha • Data: Febrero 2008

Diseño y Maquetación • Diseinu eta Maketazioa: Marra, S.L.

Imprime • Inprimaketa: Lankopi S.A.

Depósito Legal • Lege-gordailua: Bi-3214-07

ISBN: 978-84-612-1355-9

---

Se autoriza la reproducción parcial de esta obra, siempre que ésta no tenga fines comerciales y la fuente sea citada.

Agradecemos a la Asociación para las Naciones Unidas de España el haber facilitado los mandalas para elaborar este material.

Lan honen erreprodukzio partziala baimentzen da, beti ere helburu komertzialik ez badu eta iturburua aipatzen baldin bada.

Espainako Nazio Batuetarako Erankundeari eskertu nahi diogu material hau egin ahal izateko mandalak erraztu izana.

# Índice


I. Presentación 2

II. ¿Qué son los mandalas? 10

III. Los mandalas a lo largo de la historia 10

IV. Significados de colores 12

V. Trabajar con mandalas 14

VI. Mandalas 20


# Aurkibidea


I. Aurkezpena 3

II. Zer dira mandalak? 11

III. Mandalak historian 11

IV. Koloreen esanahia 13

V. Mandalekin lanean 15

VI. Mandalak 20

Hace muchísimo tiempo existió algo desprovisto de nombre y cuya forma desconocida ocultó tanto el cielo como la tierra.

Al verlo, los dioses lo agarraron comprimiéndolo contra el suelo, con la cara hacia abajo. Una vez arrojado al suelo, los dioses lo retuvieron pegado a éste.

Brama hizo que los dioses lo ocuparan y lo llamó vastu-purusha mandala.

ANTIGUO TEXTO HINDÚ

## I. PRESENTACIÓN

Este material titulado "Los mandalas de los Objetivos de Desarrollo del Milenio" (ODM) es una propuesta para conocer, acercarnos, reflexionar, meditar e implicarnos con los temas que presentan los Objetivos de Desarrollo del Milenio.

En la Asamblea General de Naciones Unidas del año 2000, 189 jefes de estado y gobierno apoyaron la *Declaración del Milenio*[1], donde los y las líderes mundiales afirmaron que no ahorrarían ningún esfuerzo para acabar con la pobreza de una vez por todas, a la vez que encumbraron una serie de valores –la democracia, la libertad, la igualdad, la paz, etc.– como pilares de la comunidad internacional. Posteriormente, estos compromisos genéricos se concretaron en los ocho Objetivos de Desarrollo del Milenio[2], que ya abordan temáticas específicas (pobreza, educación, salud, etc.) y se plantean una serie de metas concretas con fecha de cumplimiento.

Estos objetivos son:

1. Erradicar la pobreza extrema y el hambre.
2. Lograr la enseñanza primaria universal.
3. Promover la igualdad entre los géneros y la autonomía de la mujer.
4. Reducir la mortalidad infantil.
5. Mejorar la salud materna.
6. Combatir el VIH/SIDA, el paludismo y otras enfermedades.
7. Garantizar la sostenibilidad del medio ambiente.
8. Fomentar una asociación mundial para el desarrollo.

Por otro lado, los mandalas son unas imágenes ancestrales que reflejan figuras básicas y sirven para la expresión creativa, la concentración y la meditación. Es una propuesta que puede ser-

[1] Accesible en www.un.org/spanish/millenniumgoals/ares552.html

[2] Ver la lista completa, con sus metas concretas e indicadores, en www.undp.org/spanish/mdg/goallist.shtml

Aspaldi-aspaldian, bazegoen izenik gabeko zerbait, eta horren forma ezezagunak zerua nahiz lurra ezkutatu zituen.

Hori ikusitakoan, jainkoek lurraren kontra estutuz heldu zioten, aurpegia beherantz begira zuela. Lurrera bota zutean, jainkoek hari itsatsita mantendu zuten.

Jainkoek okupa zezaten egin zuen Bramak eta vastu-purusha mandala izena jarri zion.

INDIAKO ANTZINAKO TESTUA

## I. Aurkezpena

“Milurtekoko Garapen-Helburuen (MGH) mandalak” izeneko material hau da Milurtekoko Garapen Helburuek aurkezten dituzten gaiak ezagutu, haietara hurbildu, haiei buruzko gogoeta egin, meditatu eta haien partaide izateko proposamena.

2000. urteko Nazio Batuen Batzar Nagusian, 189 estatu eta gobernutako buruk beren babesa eman zioten *Milurtekoko Adierazpenari*[1]; munduko buruzagi guztiek adierazi zuten beren esku zegoen guztia egingo zutela pobrezia behingoz desagerrarazteko, eta, aldi berean, hainbat balio goraipatu zituzten nazioarteko erkidegoaren oinarri –demokrazia, askatasuna, berdintasuna eta bakea, besteak beste–. Ondoren, konpromiso generiko horiek Milurtekoko zortzi Garapen Helburuetan[2] (MGH) gauzatu zituzten. Helburu horiek dagoeneko gai jakin batzuk lantzen dituzte (pobrezia, hezkuntza, osasuna eta abar) eta epe batzuen barruan gauzatu beharreko helburu zehatz batzuk proposatzen dituzte.

Hauek dira helburuak:

1. Muturreko pobrezia eta gosea desagerraraztea.
2. Lehen Hezkuntza unibertsala erdiestea.
3. Genero-berdintasuna eta emakumeen autonomia sustatzea.
4. Haurren heriotza-tasa murriztea.
5. Amen osasuna hobetzea.
6. GIB/HIESari, paludismoari eta beste gaixotasun batzuei aurre egitea.
7. Ingurumenaren iraunkortasuna bermatzea.
8. Garapenerako munduko elkarte bat sustatzea.

Bestetik, mandalak oinarrizko formak adierazten dituzten antzinako irudiak dira, eta sormen-adierazpenerako, kontzentraziorako eta meditaziorako balio dute. Haurrentzat nahiz pertsona helduentzat balio duen proposamen bat da, eta, MGHen gaiekin

[1] Eskuragarri www.un.org/spanish/millenniumgoals/ares552.html helbidean

[2] Ikusi zerrenda osoa, helburu jakinekin eta adierazleekin helbide honetan www.undp.org/spanish/mdgsp/mdgtablesp.pdf

vir tanto para niños y niñas como para personas adultas y que, con dibujos relacionados con las temáticas de los ODM, nos pueden ayudar a tomar conciencia sobre los problemas claves de la humanidad y reflexionar sobre nuestra situación ante ellos.

Los mandalas que aquí se presentan forman parte de un conjunto más amplio de recursos en los que intentamos presentar de forma crítica esta información. Además de los mandalas se puede contar con:

- Pósteres.
- Cuadernos con información y testimonios para cada uno de los objetivos.
- Cómics de cada uno de los objetivos.

Todos estos materiales se pueden solicitar en ALBOAN, también nos puedes hacer llegar tu evaluación así como contarnos cómo has puesto en práctica estos mandalas, para que lo podamos poner en nuestra página web y dar ideas a otras personas.

## Propuesta de evaluación

Para valorar la utilidad de este material como herramienta para alcanzar los objetivos pretendidos, presentamos los siguientes criterios de evaluación:

| Criterios de evaluación. Valora del 1 (nada) al 5 (mucho) | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| Grado de comprensión de los mandalas | | | | | |
| Interés por conocer la situación de los ODM | | | | | |
| Actitud de respeto ante el trabajo realizado por cada persona | | | | | |
| Capacidad de cuestionar y analizar las causas de la situación que reflejan los ODM | | | | | |
| Nivel de participación en el trabajo | | | | | |
| Actitud abierta, dialogante y cooperativa en la puesta en común | | | | | |

lotutako irudien laguntzaz, gizateriaren oinarrizko arazoak zein diren jabetzen lagundu gaitzake, bai eta horien aurrean dugun jarrerari buruzko gogoeta egiten ere.

Hemen azaltzen diren mandalak baliabide-multzo handiago baten parte dira, eta, horien laguntzaz, informazio hau modu kritikoan azaltzen saiatu gara. Mandalez gain, baliabide hauek ere baditugu:

- Posterrak.
- Helburu bakoitzaren informazioa eta lekukotasunak biltzen dituzten koadernoak.
- Helburu bakoitzaren komikiak.

Material horiek guztiak ALBOANen eska ditzakezu; nahi izanez gero, bidal iezaguzu zure iritzia edo kontatu nola erabili dituzun mandalak; zure azalpenak web-ean jarriko ditugu, beste batzuei ideiak emateko.

## Ebaluazio-proposamena

Aurreikusitako helburuak lortzeko balia daitekeen material honen erabilgarritasuna balioztatzeko, ebaluazio-irizpide hauek aurkezten ditugu:

| Ebaluazio-irizpideak. Eman 1 (ezer ez) eta 5 (asko) bitarteko puntuazioa | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| Mandalen ulertze-maila | | | | | |
| MGHen egoera ezagutzeko interesa | | | | | |
| Pertsona bakoitzak gauzatutako lanarekiko errespetuzko jarrera | | | | | |
| MGHek adierazten duten egoeraren arrazoiak eztabaidatzeko eta aztertzeko gaitasuna | | | | | |
| Laneko partaidetzaren maila | | | | | |
| Parte-hartzeari dagokionez, elkarrizketarako eta lankidetzarako jarrera irekia izatea | | | | | |

De la misma manera, proponemos que los y las destinatarias valoren la validez de este trabajo.

| Nos gustaría conocer tu opinión. Valora del 1 (nada) al 5 (mucho) | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| El trabajo previo de presentación de los mandalas ¿te ha ayudado a adquirir una visión de los aspectos que se pretendían trabajar? | | | | | |
| Las actividades personales de trabajo sobre los mandalas ¿te han hecho reflexionar sobre la situación sobre la que trabajabas? | | | | | |
| La metodología utilizada ¿te ha parecido adecuada? | | | | | |
| Los contenidos de lo compartido ¿te han parecido interesantes e importantes? | | | | | |
| Señala en las líneas inferiores la actividad trabajada y el colectivo con el que se ha trabajado. | | | | | |
| **Sugerencias:**<br>¿Qué aspectos mejorarías (metodología, contenidos, actividades)? ¿Por qué?<br>¿Qué aspectos de todo lo trabajado te han hecho reflexionar, cuestionarte cosas? | | | | | |

**www.alboan.org**

Padre Lojendio 2, 2º • 48008 Bilbao
Tel.: 94 415 11 35 • Fax: 944 161 938
alboanbi@alboan.org

Avenida Barañain 2 • 31011 Pamplona
Tel.: 948 231 302 • Fax: 948 264 308
alboanna@alboan.org

C/ Ronda 7, 4º I • 20001 San Sebastián
Tel.: 943 275 173 • Fax: 943 320 267
alboangi@alboan.org

Halaber, ikasleek lan honen balioa baloratzea proposatzen dugu.

| Zure iritzia jakin nahi dugu. Eman 1 (ezer ez) eta 5 (asko) bitarteko puntuazioa | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| Mandalak aurkeztu baino lehenagoko lanak lagundu dizu landu nahi ziren alderdien ikuspegia zabaltzen? | | | | | |
| Mandalei buruzko lanean egin dituzun jarduerek sustatu ahal dizute lantzen ari zaren egoerari buruzko hausnarketa? | | | | | |
| Metodologia egokia erabili da? | | | | | |
| Partekatutako edukiak interesgarriak eta garrantzitsuak izan dira? | | | | | |

Adierazi beheko lerro horietan zer jarduera landu duzun
eta zer talderekin lan egin duzun.

.................................................................................................

.................................................................................................

**Iradokizunak:**

Zer alderdi hobetuko zenuke (metodologia, edukiak, jarduerak)? Zergatik?

.................................................................................................

.................................................................................................

Lan guztian, zer alderdik eragin dizu hausnarketa eta zalantza?

.................................................................................................

.................................................................................................

www.alboan.org

Aita Lojendio kalea 2, 2. • 48008 Bilbo
Tel.: 94 415 11 35 • Faxa: 944 161 938
alboanbi@alboan.org

Barañaingo etorbidea 2. • 31011 Iruñea
Tel.: 948 231 302 • Faxa: 948 264 308
alboanna@alboan.org

Erronda kalea 7 zk., 4. I. • 20001 Donostia
Tel.: 943 275 173 • Faxa: 943 320 267
alboangi@alboan.org

## II. Qué son los mandalas

Nos podemos preguntar ¿qué son los mandalas? Pero en nuestra vida cotidiana nos encontramos mandalas a cada paso: los podemos ver en los círculos concéntricos que genera una gota de agua, un pez o una hoja en una superficie acuática; en el círculo formado por los pétalos de las flores o los anillos de los árboles; en una telaraña; en la imagen del sol que emana rayos de luz; en los ciclones y torbellinos.

Nuestro planeta es un mandala así como lo es la Vía Láctea, las células o nuestro propio cuerpo. Todos estos elementos son mandalas que, a su vez, forman parte de mandalas mayores.

La definición literal de la palabra sánscrita mandala es círculo (compuesto de manda "esencia" y la "contenedor") que también es entendida como "lo que contiene la esencia" o "la esfera de la esencia".

Los elementos que componen los mandalas (el círculo, el cuadrado o el triángulo) son imágenes ancestrales que se encuentran arraigadas en todos nosotros y nosotras como lo estuvieron en las personas que nos precedieron y en las que nos seguirán.

Los mandalas ya se encontraban presentes en las antiguas civilizaciones. Éstas sabían calmar su mente y su alma y encontrar la armonía con otras personas y el universo con la ayuda de imágenes circulares, como un camino para acercarse de nuevo a la propia naturaleza.

## III. Los mandalas a lo largo de la historia

Ya en el **neolítico**, cuando la humanidad dejó de ser nómada y se convirtió en sedentaria, comenzó a pintar diferentes símbolos mágicos. Quizá el más importante y conocido mandala del Neolítico (aunque se desconoce el motivo real de su construcción) es Stonehnge, en la llanura de Salisbury, Inglaterra.

En el **antiguo Egipto** también se encuentran grabados en las pirámides egipcias en los que se muestran la utilización de mandalas como objetos base para la concentración así como para la activación de la energía positiva del lugar, la meditación profunda o para expandir la capacidad de la mente y la memoria entre otros usos.

También se han encontrado vestigios de símbolos mandálicos entre los druidas, en la civilización de **China** o en las pirámides de **México.**

En **oriente**, con la tradición hindú es donde los mandalas han tenido mayor desarrollo. Estos mandalas han llegado a constituir imágenes bien complejas con un gran simbolismo.

Se dice que los mandalas fueron introducidos en el **Tíbet** desde la India por el gran gurú Padma Sambhava (siglo VIII a. C.). Desde entonces los mandalas forman parte de las ceremonias y enseñanzas tibetanas, construyéndose mediante granos de arroz o arena, con pinturas o con hilos de color.

No obstante, en ninguna de las religiones de **oriente** los mandalas se encuentra tan intensamente representados como en el hinduismo y el budismo que se practica en la India occidental que se utilizan como imágenes tanto para la meditación como para la arquitectura.

Desde la antigüedad también se encuentran en China mandalas simbólicos como elementos religiosos o arquitectónicos. También se ha dicho que las formas que componen el I Ching (el libro de los cambios) son mandálicas pues describen la compo-

## II. Zer dira mandalak

Gure buruari galdera hau egin diezaiokegu: zer dira mandalak? Baina gure eguneroko bizitzan pauso bat eman orduko, mandala bat aurkitzen dugu: ur tanta batek, arrain batek edo hosto batek uretan sortzen duten zirkulu zentrokide batean ikusi ditzakegu; bai eta, besteak beste, lore-hostoek edo zuhaitzen eraztunek sortzen duten zirkuluan, armiarma-sare batean, eguzkitik datozen argi-izpien irudian, zikloietan eta zurrunbiloetan ere.

Gure planeta mandala bat da, bai eta Esne bidea, zelulak edo gure gorputza ere. Elementu horiek guztiak mandalak dira, eta, aldi berean, mandala handiagoen parte dira.

Sanskritoko mandala hitzaren hitzez hitzeko definizioa “zirkulu” da (“manda” “esentzia” eta “la” “edukiontzi” hitzen konposatua), eta “esentzia duena” edo “esentziaren esfera” gisa ere ulertzen da.

Mandalak osatzen dituzten elementuak (zirkulua, karratua edo hirukia) gure barnean finkatutako antzinako irudiak dira; eta gurean dauden bezalaxe egon ziren lehen gure arbasoen barnean eta egongo dira gero gure ondorengoengan.

Antzinako zibilizazioetan ere bazeuden mandalak. Zibilizazio horiek bazekiten beren gogoa eta arima baretzen irudia zirkularren laguntzaz, bai eta beste pertsonekin eta unibertsoarekin harmonia aurkitzen ere; berriro norberaren izaerara hurbiltzeko bidea zuten hori.

## III. Mandalak historian

Jadanik **neolitoan**, gizakia nomada izateari utzi eta sedentario bilakatu zenean, sinbolo magikoak marrazten hasi zen. Salisburyko lautadako Stonehnge (Inglaterra) da, agian, Neolitoko mandalarik garrantzitsu eta ezagunena (nahiz eta hori eraikitzeko benetako helburua zein izan zen ez jakin).

**Antzinako Egiptoko piramideetan** ere badaude mandalak irudikatzen dituzten grabatuak. Kontzentraziorako oinarrizko elementu gisa azaltzen dira mandala horiek, bai eta tokiko energia positiboa aktibatzeko, meditazio sakonerako edo buruaren eta adimenaren gaitasunak areagotzeko ere, besteak beste.

Druiden artean, **Txinako** zibilizazioan edo **Mexikoko** piramideetan ere aurkitu dira sinbolo mandalikoen aztarnak.

Hedapenik handiena **ekialdean** izan dute mandalek, hinduen tradizioaren laguntzaz. Sinbolismo handiko irudi konplexuak izatera iritsi dira mandala horiek.

Esaten da Padma Sambhava (K.a VIII. mendea) guruak Indiatik sartu zituela mandalak **Tibeten**. Ordutik hona, mandalak zeremonien eta irakaskuntza tibetarraren parte dira, eta arroz- eta harea-alez, pinturez edo kolorezko hariz egiten dira.

Dena den, hinduismoak eta Indiako mendebaldean praktikatzen den budismoak meditaziorako nahiz arkitekturako irudi gisa erabiltzen ditu mandalak; **ekialdeko** beste erlijioetan, ordea, mandalak ez dira hain biziki irudikatzen.

Antzinatetik daude Txinan ere elementu erlijioso edo arkitektoniko gisa erabiltzen diren mandala sinbolikoak. Horrez gain, esan da, I Ching (aldaketen liburua) osatzen duten formak mandalikoak direla, kosmologia txinatarraren arabera azaltzen baitu unibertsoaren osaera, existentziaren jatorriaren sinboloa den Wu Gi zirkuluaren laguntzaz. Feng Shui eta medikuntza txinatarra teknika mandalikoak dira; horien arabera, ongizate fisiko eta espiritualak gorputz-energiaren orekarekin lotura estua baitu.

sición del orden del universo según la cosmología china, con el círculo Wu Gi como símbolo del origen de la unidad de toda existencia. El Feng Shui y la medicina china son técnicas mandálicas ya que consideran que el bienestar físico y espiritual está íntimamente ligado al equilibrio de la energía del cuerpo.

**Mandalas en occidente.** En Europa se han empleado los mandalas en los edificios sagrados como las catedrales góticas y los rosetones que forman las vidirieras. El sentido profundo y sagrado de todas estas representaciones tanto en la religión cristiana como en el Islam es acercar a la persona creyente a su Dios.

En la actualidad aún se emplean los mandalas en el **budismo tibetano** (tanto en el Tíbet como en el gobierno en el exilio) así como en **América**, donde numerosas tribus confeccionan mandalas mediante hilos de colores y plumas.

En todas las culturas en las que los mandalas influyen en la vida espiritual, la contemplación o la oración por medio de imágenes circulares desempeña un papel muy importante. Sólo a través de esta vía, el ser humano encuentra el camino de regreso hacia su propio centro interior, su fuente de energía, que acumula las energías anímicas dispersas y le devuelve la unidad. A este proceso de contemplación se le denomina meditación.

## IV. Significados de colores

El uso de los colores en los mandalas también tiene un significado especial. Su uso está relacionado con el estado de ánimo de quien los pinta o dibuja. Descubre lo que esconde cada tonalidad:

- **Blanco:** nada, pureza, iluminación, perfección.
- **Negro:** muerte, limitación personal, misterio, renacimiento, ignorancia.
- **Gris:** neutralidad, sabiduría, renovación.
- **Rojo:** masculino, sensualidad, amor, arraigo, pasión.
- **Azul:** tranquilidad, paz, felicidad, satisfacción, alegría.
- **Amarillo:** sol, luz, jovialidad, simpatía, receptividad.
- **Naranja:** energía, dinamismo, ambición, ternura, valor.
- **Rosa:** aspectos femeninos e infantiles, dulzura, altruismo.
- **Morado:** amor al prójimo, idealismo, sabiduría.
- **Verde:** naturaleza, equilibrio, crecimiento, esperanza.
- **Violeta:** música, magia, espiritualidad, transformación, inspiración.
- **Oro:** sabiduría, claridad, lucidez, vitalidad.
- **Plata:** capacidades extrasensoriales, emociones fluctuantes, bienestar.

**Mandalak mendebaldean.** Europan, eraikuntza sakratuetan erabili dira mandalak, besteak beste, katedral gotikoetan eta beirateak osatzen dituzten arrosa-lehioetan. Kristau-erlijioko nahiz islameko irudikapen horien guztien arrazoi sakon eta sakratua fededuna jainkoarengana hurbiltzea da.

Gaur egun, mandalak erabiltzen dira oraindik **budismo tibetarrean** (bai Tibeten, bai erbestean dagoen gobernuan), bai eta **Ameriketan** ere; hain zuzen ere, Ameriketako hainbat tribuk mandalak egiten dituzte koloretako hariz eta lumaz.

Mandalen eragina duten kultura guztietan, irudi zirkularren bidezko kontenplazioa edo otoitzaren eginkizuna oso garrantzitsua da bizitza espiritualean. Hori da bide bakarra, gizakiak bere barneko orekara –bere energia-iturrira– itzultzeko bidea aurkitzeko, horrek batzen baititu sakabanatutako gogo-energiak eta itzultzen baitio unitatea. Mota horretako kontenplazioari “meditazio” deritzo.

## IV. Koloreen esanahia

Koloreak erabiltzeko moduak ere esanahi berezia dauka mandaletan. Margotzen edo marrazten dituenaren gogo-aldartearekin erlazionatuta dago horien erabilera. Ikusi zer gordetzen duen tonalitate bakoitzak:

- **Zuria:** ezereza, araztasuna, argiztapena, perfekzioa.
- **Beltza:** heriotza, muga pertsonala, misterioa, berpizkundea, ezjakintzasuna.
- **Grisa:** neutraltasuna, jakinduria, eraberritzea.
- **Gorria:** maskulinoa, sentsualitatea, maitasuna, irmotasuna, irrika.
- **Urdina:** lasaitasuna, bakea, zoriontasuna, gogobetetasuna, poztasuna.
- **Horia:** eguzkia, argia, gaztetasuna, begikotasuna, harmena.
- **Laranja:** energia, dinamismoa, anbizioa, samurtasuna, adorea.
- **Arrosa:** emakumezkoen eta haurren ezaugarriak, gozotasuna, altruismoa.
- **Morea:** lagun hurkoarenganako maitasuna, idealismoa, jakituria.
- **Berdea:** natura, oreka, hazkundea, itxaropena.
- **Bioleta:** musika, magia, espiritualtasuna, transformazioa, inspirazioa.
- **Urre-kolorea:** jakinduria, argitasuna, buru-argitasuna, bizitasuna.
- **Zilar-kolorea:** zentzumenez kanpoko gaitasunak, emozio gorabeheratsuak, ongizatea.

## V. Trabajar con mandalas

El trabajo con mandalas es el de colorear unos dibujos preestablecidos. Por lo tanto es un trabajo a realizar tanto por niños y niñas como personas adultas. Los mandalas son una técnica de meditación activa que, según las edades, puede tener repercusiones y profundidades diferentes. No obstante el trabajo con los mandalas puede contribuir a los siguientes objetivos:

- Concentrase y/o meditar sobre unos temas concretos.
- Entrar en contacto con la propia esencia.
- Expresarse mejor con el mundo exterior.
- Desarrollo de la paciencia.
- Despertar de los sentidos.
- Escuchar la voz de tu intuición.

### Trabajando los mandalas con niños y niñas

**Desarrollo:** en un primer momento convendría hacer una pequeña explicación sobre los mandalas ¿qué son? ¿Desde hace cuánto tiempo se vienen utilizando? ¿Para qué han servido? Posteriormente se reparten y presentan estos mandalas concretos y se explica la temática que representan esos mandalas: pobreza, educación, salud, mujer, infancia, enfermedades, medio ambiente y nuestro papel para cambiar esta situación.

Seguidamente, se propone que sean ellos y ellas quienes escojan el mandala a colorear. Se facilita las pinturas o rotuladores necesarios y se pide que en calma y calladamente miren a su dibujo e intenten ver con qué colores lo quieren pintar. Se pide que los pinten lentamente y que vayan pensando qué ven en el dibujo y por qué lo pintan de ese color. Posteriormente se expondrán los dibujos en las paredes del local y se le pedirá que cada persona explique lo que ha visto y querido demostrar con el dibujo.

Finalmente se propone que, con todo lo presentado y hablado hasta el momento, elaboren su propio mandala.

**Tiempo:** se puede hacer el trabajo en tres sesiones de 20 minutos.

**Materiales:** copias de las imágenes de los mandalas, pinturas para colorear, información para explicar los temas que se tratan en los Objetivos de Desarrollo del Milenio.

## V. Mandalekin lanean

Mandalekin egiteko lanean, aurretik sortutako marrazki batzuk koloreztatu behar dira. Horregatik, haurrek nahiz pertsona helduek egiteko lana da. Mandalak meditatzeko teknika aktibo bat dira, eta adinaren araberako ondorio eta sakonerak lor daitezke haiekin. Hala ere, mandalekin lan egiteak helburu hauetan lagundu dezake:

- Gai jakin batzuetan kontzentratu edo/eta haiei buruz meditatzea.
- Esentziarekin kontaktuan jartzea.
- Kanpoko munduarekin hobeto komunikatzea.
- Pazientzia garatzea.
- Zentzumenak piztea.
- Senaren ahotsa entzutea.

### Haurrekin mandalak lantzen

**Garapena:** hasiera batean, egokia izango litzateke mandalei buruzko azalpen txiki bat ematea. Zer dira? Noiztik erabiltzen dira? Zertarako balio izan dute? Gero, mandala jakin hauek banatzen eta aurkezten dira eta horiek irudikatzen duten gaia azaltzen da: pobrezia, hezkuntza, osasuna, emakumea, haurtzaroa, gaixotasunak, ingurumena eta gure eginkizuna egoera hori aldatzeko.

Ondoren, koloreztatzeko mandala aukeratu dezaten proposatu diezaiokegu. Behar dituzten margoak edo errotuladoreak eman, eta, lasai eta isiltasunean, beren marrazkiari begiratu eta zer kolorerekin koloreztatu nahi duten imajinatzea eskatzen zaie. Geldi-geldi koloreztatzeko eta marrazkian zer ikusten duten eta zergatik koloreztatzen duten kolore horrekin pentsatuz joateko eskatzen zaie. Ondoren, lokaleko paretetan jarriko dira marrazkiak, eta marrazkian zer ikusi eta erakutsi nahi izan duen azaltzeko eskatuko zaio pertsona bakoitzari.

Azkenean, aurkeztutako eta hitz egindako guztiarekin bakoitzak bere mandala egitea proposa dakieke.

**Denbora:** lana 20 minutuko hiru saiotan gauzatu daiteke.

**Materialak:** mandalen irudien kopiak, koloreztatzeko margoak, milurtekoko garapen-helburuetan aztertzen diren gaiak azaltzeko informazioa.

## Trabajando con jóvenes

**Desarrollo:** en un primer momento se les puede pedir a los y las jóvenes que en grupos separados unos busquen información sobre los mandalas y otros sobre los Objetivos de Desarrollo del Milenio. Con la información obtenida se les pedirá que elaboren la información en unos carteles que presentarán a sus compañeros y compañeras. Otra alternativa es que el o la educadora les cuente esta información con el material previo que acompaña a estos mandalas.

Posteriormente, se realiza el trabajo con mandalas, cada persona puede seleccionar uno o se pueden repartir aleatoriamente, y se les pide que los pinten en silencio con una música suave de fondo. Se les pide que se dejen llevar y piensen una idea o un lema que les sugiere lo que han estado viendo sobre los ODM.

Se pone la música y se lee lenta y pausadamente el texto de "Pobrezas" de Galeano o se utiliza la canción de Seguridad Social "Acuarelas" de su disco En la boca del volcán.

Posteriormente se colocan los mandalas sobre el suelo o la pared y compartimos lo que han sido nuestras reflexiones y sentimientos durante la sesión.

Otra actividad puede ser presentar el significado de los colores y que cada persona analice qué sentimientos representan los colores por él o ella elegidos y que piensen cuáles serían los que les gustaría mostrar y que lo pinten así.

### Pobrezas

Pobres,
lo que se dice pobres,
son los que no tienen tiempo
para perder el tiempo.

Pobres,
lo que se dice pobres,
son los que no tienen silencio
ni pueden comprarlo.

Pobres,
lo que se dice pobres,
son los que tienen piernas
que se han olvidado de caminar,
como las alas de las gallinas
que se han olvidado de volar.

Pobres,
lo que se dice pobres,
son los que comen basura y pagan
por ella como si fuese comida.

Pobres,
lo que se dice pobres,
son los que tiene el derecho de
respirar mierda, como si fuera aire,
sin pagar nada por ella.

Pobres,
lo que se dice pobres
son los que no tienen más libertad
de elegir entre uno y otro canal
de televisión.

Pobres,
lo que se dice pobres,
son los que viven dramas pasionales
con las máquinas.

Pobres,
lo que se dice pobres,
son los que son siempre muchos
y están siempre solos.

Pobres,
lo que se dice pobres,
son los que no saben que son pobres.

**Tiempo:** una sesión de 50 minutos o dos sesiones de cincuenta minutos.

**Material necesario:** fotocopias de las imágenes de los mandalas, pinturas para colorear, música de fondo.

**Garapena:** hasiera batean, taldetan banatuta mandalei eta Milurtekoko Garapen Helburuei buruzko informazioa bilatzeko eska dakieke. Informazioa bildutakoan beren kideei informazioa aurkezteko kartel batzuk egiteko eskatuko zaie. Beste aukera bat da hezitzaileak informazio hori gazteei azaltzea, mandalekin batera datorren materiala erabiliz.

Ondoren, mandalekin lana egiten da. Pertsona bakoitzak mandala bat aukeratu dezake, edo ausazko banaketa egin daiteke; gero, hondo-musika jarri eta isiltasunean mandalak koloreztatzeko eskatzen zaie. Mandalak koloreztatu bitartean, MGHetan ikusi dutena gogorarazten dieten ideia bat –lelo bat– pentsatzeko eskatuko zaie.

Musika jarri eta Galeanoren "Probreziak" testua astiro eta patxadaz irakurtzen da edo Seguridad Social-eko La boca de volcán-en diskon agertzen den abestia "Acuarelas" entzuten da.

Koloreztatze-lana bukatutakoan, lurrean edo paretan jartzen dira mandalak, eta saioa egin bitartean izan ditugun sentimenduak eta hausnarketak azalduko dizkiogu elkarri.

Egin daitekeen beste jarduera bat da koloreen esanahia azaltzea, eta bakoitzak azter dezala aukeratu dituen koloreek zer irudikatzen duten berarentzat, eta pentsa dezala zer kolore erakutsi nahi dien gainerakoei, eta hala koloreztatu dezala mandala.

## Pobreziak

Pobreak,
benetako pobreak,
denbora galtzeko denborarik
ez dutenak dira.

Pobreak,
benetako pobreak,
isiltasunik izan ez eta erosi ere
ezin dutenak dira.

Pobreak,
benetako pobreak,
hegan egiten ahaztu zaien
oiloen hegoak bezala
oinez egiten ahaztu zaien
hankak dituztenak dira.

Pobreak,
benetako pobreak,
zaborra jan eta zabor horregatik
janaria balitz bezala ordaintzen
dutenak dira.

Pobreak,
benetako pobreak, airea balitz bezala
zikinkeria arnasteko eskubidea
dutenak dira, horregatik
ezer ordaindu gabe.

Pobreak,
benetako pobreak, telebistako kanal
baten edo bestearen artean
aukeratzeko askatasun
gehiago ez dutenak dira.

Pobreak,
benetako pobreak,
makinekin pasiozko dramak
bizi dituztenak dira.

Pobreak,
benetako pobreak,
beti asko izan eta beti bakarrik
daudenak dira.

Pobreak,
benetako pobreak,
pobre direla ez dakitenak dira.

**Denbora:** 50 minutuko saio bat edo bi.

**Behar den materiala:** mandalen fotokopiak, koloreztatzeko margoak, hondo-musika.

## Trabajando con personas adultas

**Desarrollo:** en un primer momento se les pide que nos den ideas sobre qué saben sobre los mandalas, completamos la información recogida de ellos y ellas con la que aparece al comienzo de este documento. Lo mismo haremos con los ODM.

Posteriormente se les invita a ubicarse de forma cómoda, crear un ambiente de silencio y disponer de los recursos necesarios para pintar a mano. Se coloca una música relajante de fondo y se les pide que observen los mandalas, que elijan aquel que más les atrae aunque no sepan por qué y que se vayan al sitio deseado, dediquen un tiempo a observarlo y lo vayan coloreando: algunas personas sin pensar demasiado en los colores, sólo dejándose llevar y otras intentando pensar qué colores les está pidiendo el mandala.

Una de las personas dinamizadoras puede leer lentamente algunas de las citas que aparecen acompañando a los mandalas. O pueden entregarse los mandalas junto con la cita para que las personas, mientras vayan pintando el mandala, vayan meditando en torno a la cita o los datos ofrecidos.

Después de este rato se les pide que presenten sus dibujos y transmitan sus reflexiones y sentimientos cuando han estado pintando los mandalas.

Finalmente se les pedirá asumir un compromiso personal o grupal con todo lo reflexionado.

Otra actividad puede ser presentar el significado de los colores y que cada persona analice qué sentimientos representan los colores por él o ella elegidos y que piensen cuáles serían los que les gustaría mostrar y que lo pinten así.

**Tiempo:** 90 minutos.

**Material necesario:** fotocopias de las imágenes de los mandalas, pinturas para colorear, música de fondo.

## Pertsona helduekin lanean

**Garapena:** hasiera batean, mandalei buruz zer dakiten kontatzeko eskatzen zaie. Bildutako informazio hori txosten honen hasieran azaltzen den informazioarekin osatuko dugu. Gauza bera egingo dugu MGHekin.

Ondoren, eroso jartzeko eskatzen zaie, isiltasuneko giroa sortzeko eta eskuz margotzeko behar dituzten baliabideak eskuratzeko. Hondo-musika lasaigarria jarri, eta mandalei begiratzea, gustukoena aukeratzea –nahiz eta ez jakin zergatik den gustukoena– eta nahi duten lekuan jesartzeko eskatzen zaie. Hautatutako lekuan jarritakoan, denbora batez mandalari begiratzeko eta koloreztatuz joateko eskatzen zaie: koloreei erreparatu gabe, gehiegi pentsatu gabe; edo mandalek zer kolore eskatzen dien pentsatuz.

Dinamizatzaileetako batek mandalekin bat datozen aipuak irakur ditzake astiro. Bestela, mandalak aipuarekin batera banatu ditzake, mandalak koloreztatu bitartean emandako datu edo aipuei buruz gogoeta egin dezaten.

Hori egin ostean, beren marrazkiak aurkezteko, eta mandalak koloreztatu bitartean izan dituzten sentimenduak eta egin dituzten gogoetak transmititzeko eskatuko zaie.

Azkenik, hausnartutako guztiarekin norbanako edo taldeko konpromiso bat bere gain hartzea eskatuko zaie.

Egin daitekeen beste jarduera bat da koloreen esanahia azaltzea, eta bakoitzak azter dezala aukeratu dituen koloreek zer irudikatzen duten berarentzat, eta pentsatu dezala zer kolore erakutsi nahi dien gainerakoei, eta hala koloreztatu dezala mandala.

**Denbora:** 90 minutu.

**Behar den materiala:** mandalen fotokopiak, koloreztatzeko margoak, hondo-musika.



## Pobreza

### Datos

Aunque el progreso ha sido desigual, se han alcanzado grandes logros en la lucha contra la pobreza mundial. En el periodo comprendido entre 1990 y 1999, el porcentaje de personas que vivían con menos de un dólar por día descendió del 30% al 23%. La mayoría de los países de Asia y de África septentrional van camino de alcanzar la meta de reducir a la mitad la pobreza extrema.

**Frase**

En los países desarrollados existe una pobreza íntima, una pobreza de espíritus, de soledad, de falta de amor. No hay enfermedad mayor en el mundo de hoy que esa suerte de pobreza.

Madre Teresa de Calcuta



## Pobrezia

### Datuak

Aurrerapen-prozesuak gorabeherak izan dituen arren, arrakasta handiak lortu dira munduko pobreziaren aurkako borrokan. 1990 eta 1999 urteen bitartean, eguneko dolar batekin bizi ziren pertsonen portzentajea %30etik %23ra jaitsi zen. Erabateko pobrezia erdira murrizteko helburua lortzekotan dabiltza Asia eta Iparraldeko Afrikako lurralde gehienak.

**Esaldia**

Lurralde garatuetan barneko pobrezia dago, arima- eta bakartasun-pobrezia, maitasun faltarena. Gaur egun, ez da munduan pobrezia-mota hori baino gaixotasun handiagorik.

Kalkutako Ama Teresa



## Educación

### Datos

Durante la última década se han realizado ciertos avances:

- En los últimos 5 años, 27 millones de niños y niñas han sido escolarizados.
- Las tasa escolares se han reducido considerablemente en varios países como Kenia, Tanzania, Uganda y Burundi.
- En Bangladesh, existe el mismo número de niñas que niños escolarizados.
- En algunos países de América Latina, el gasto público en educación se ha incrementado visiblemente.

A pesar de estos avances a nivel mundial, es preciso aún lograr algunos avances para alcanzar el objetivo de una educación básica universal y de calidad para el 2015:

- La educación infantil requiere aún de avances significativos.
- 100 millones de niños y niñas en el mundo no están escolarizados
- 23 países corren el riesgo de no lograr la universalización de la educación primaria para el 2015.
- La alfabetización de personas adultas se subestima.

**Frase**

La educación entrega a la gente las llaves del mundo.

José Martí

## Hezkuntza

### Datuak

Azken hamarkadan, hainbat aurrerapen gauzatu dira:

- Azken bost urteetan, 27 milioi haur eskolatu dira.
- Eskola-tasak asko murriztu dira hainbat herrialdetan: Kenyan, Tanzanian, Ugandan eta Burundin, besteak beste.
- Bangladeshen, eskolatutako nesken kopurua mutilena adinakoa da.
- Latinoamerikako hainbat lurraldetan, hezkuntzako gastu publikoak nabarmen egin du gora.

Nahiz eta mundu osoan aurrerapen horiek lortu ditugun, oraindik gehiago aurreratu behar da, 2015. urterako oinarrizko eta kalitateko hezkuntza ezartzeko helburua lortzeko:

- Oraindik aurrerapen nabarmenak behar dira haur-hezkuntzan.
- Mundu osoko 100 milioi neska-mutil inguru ez daude eskolatuta.
- Lehen hezkuntzaren unibertsalizazioa 2015erako ez lortzeko arriskua daukate 23 herrialdek.
- Pertsona helduen alfabetizazioa gutxiesten da.

**Esaldia**

Hezkuntzak munduaren giltzak ematen dizkio jendeari.

José Martí



## Género

### Datos

Las mujeres constituyen más del 50% de la población, aportan una tercera parte de la fuerza laboral oficial y trabajan las dos terceras partes de todas las horas de trabajo. A pesar de ello, poseen menos del 1% de las propiedades del mundo y reciben sólo una décima parte de los ingresos.

Naciones Unidas

**Frase**

...Mostramos las manos
que no tienen torturas
los ojos que no tienen lágrimas
porque ahora solamente
retamos al tiempo.

Aquí nosotras construimos futuro.

Gloria Gabuardi

## Generoa

### Datuak

Emakumeak biztanleriaren %50 baino gehiago dira, lan-indar ofizialaren herena dira eta lan-ordu guztien bi heren gauzatzen dituzte. Hala eta guztiz ere, munduko baliabideen %1 baino gutxiago dute, eta irabazien hamarrena baino ez dute jasotzen.

Nazio Batuak

**Esaldia**

...Oinazerik gabeko
eskuak erakusten ditugu
malkorik gabeko begiak
orain, denborari bakarrik egiten
baitiogu desafio.

Hemen, emakumeok etorkizuna
eraikitzen dugu.

Gloria Gabuardi



# Infancia

## Datos

Cada tres segundos muere un niño o niña a causa de la pobreza, y 300 millones de personas aún sufren a causa del hambre. Aproximadamente 5,5 millones de niños y niñas mueren por malnutrición todos los años.

**Frase**

Confianza y esperanza en que millones de niños y niñas –el futuro de África y de todo nuestro planeta– puedan tener ante ellos y ellas aquella vida larga que querríamos para nuestro hijo o nuestra hija.

Programa Dream,
Comunidad de San Egidio

# Haurtzaroa

## Datuak

Pobreziaren eraginez, haur bat hiltzen hiru segundotik behin; eta 300 milioi pertsonak pairatzen dute oraindik gosea. Malnutrizioaren eraginez, bestalde, gutxi gorabehera 5,5 milioi haur hiltzen dira urtean.

**Esaldia**

Milioika haurrek –Afrikako eta gure planetako etorkizunak– gure seme-alabentzat nahiko genukeen bizitza luzea izan dezatelako konfiantza eta itxaropena izatea.

Dream programa,
San Egidio komunitatea



## Salud materna

### Datos

Cada año mueren aproximadamente 515.000 mujeres por complicaciones durante el embarazo o en el parto. Casi todas estas muertes (el 99%) se producen en los países en desarrollo. La disparidad entre países pobres y ricos es especialmente patente en el caso de la mortalidad materna, por encima de cualquier otro indicador de salud.

Frase

HUÉRFANO DE NACIMIENTO

El niño nació prehuérfano y prematuro.
La madre murió antes del parto.

El niño como Cristo
a los tres días resucitó.

Nació huérfano de madre y de padre.
La que le parió era madre soltera.

El niño está en la incubadora
enfermo de sus genitales.

Este niño inocente nació sin familia
y condenado a no tenerla nunca.

¡Qué cosas cuento porque suceden!

Gloria Fuertes

## Amen osasuna

### Datuak

Urtean, gutxi gorabehera 515.000 emakume hiltzen dira, haurdunaldian edo erditzean izandako arazoak direla eta. Heriotza horietako gehienak (%99) garapenbideko herrialdeetan gertatzen dira. Herrialde pobreen eta aberatsen arteko desberdintasuna bereziki nabarmena da amen heriotzen kasuan, beste edozein osasun-adierazleren gainetik.

Esaldia

UMEZURTZ JAIOTZATIK

Haurra goiztiar jaio zen,
eta jaio aurretik zen umezurtz,
umeaz erditu aurretik hil zen ama.

Haurra, Kristo gisa,
berpiztu egin zen hiru egunera.

Jaio zenean ez zuen ez amarik ez aitarik.
Erditu zenean ama ezkongabea zen.

Haurra inkubagailuan dago
genitaletatik gaixo.

Haur errugabe hori familia gabe jaio zen,
eta sekula horrelakorik ez izatera zigortua.

Nolako gauzak kontatzen
ditudan gertatzen direlako!

Gloria Fuertes



## Sida

### Datos

Sólo el 3% de la inversión en sida se destina a la búsqueda de la vacuna.

Global Sida

### Frase

La lucha contra el sida puede convertirse en el banco de prueba de una globalización más responsable, más humana, que invierta la actual tendencia de creciente desinterés internacional hacia África.

Programa Dream,
Comunidad de San Egidio

## HIESa

### Datuak

Ihesean egindako inbertsioen %3 baino ez da erabiltzen txertoa bilatzeko ikerketan.

Global Sida

### Esaldia

Ihesaren kontrako borroka globalizazio arduratsuago eta gizatiarrago baten saiakuntza-banku bilaka daiteke, eta eragin dezake gaur egun nazioartean sumatzen den Afrikarenganako gero eta interes gutxiagoko joera alderantzikatzea.

Dream programa,
San Egidio komunitatea



# Ecología

## Datos

El Programa de las Naciones Unidas para el Medio Ambiente en su Agenda 21 (1992) considera que la cuarta parte de la superficie de las tierras del planeta está bajo la amenaza de la desertización. Lo que significa que los medios de subsistencia de 900 millones de personas se hallan en peligro.

La humanidad seguirá creciendo durante los próximos decenios. Las hipótesis apuntan sin embargo a que el tema demográfico va a resultar un factor de riesgo ecológico, sobre todo si tomamos en consideración que en los próximos quince años la población mundial que se concentrará en las ciudades llegará a ser del 55%.

Cuadernos Cristianismo y Justicia, 89

**Frase**

Nuestro planeta ofrece todo lo que el hombre necesita, pero no todo lo que el hombre codicia.

Gandhi

# Ekologia

## Datuak

Nazio Batuen Ingurumenerako Agenda 21 Programaren (1992) arabera, planetako lurren azaleraren laurden bat desertifikazioaren mehatxupean dago. Horrek esan nahi du 900 milioi pertsona bizitzeko baliabideak mehatxupean daudela.

Biztanle-kopurua handituz joango da hurrengo hamarkadetan. Hipotesien arabera, hala ere, badirudi demografia arrisku ekologikoaren faktoreetako bat izango dela, batez ere, kontuan hartzen badugu, hurrengo hamabost urteetan, munduko biztanleen %55 hirietan pilatuko dela.

Cuadernos Cristianismo y Justicia 89. zk.

**Esaldia**

Gure planetak gizakiak behar duen guztia eskaintzen du, baina ez gizakiak irrikatzen duen guztia.

Gandhi



## Alianza mundial

### Datos

**Asistencia**: Hace varias décadas los países ricos acordaron realizar esfuerzos para destinar cada año el 0,7% del ingreso nacional bruto (INB) a ayudas para asistir a los países en desarrollo. Tan sólo cinco países europeos han cumplido este objetivo (Dinamarca, Luxemburgo, Noruega, los Países Bajos y Suecia).

**Comercio:** El Banco Mundial estima que eliminar los obstáculos al comercio y las subvenciones al sector agrícola podría reportar 120.000 millones de dólares a los países en desarrollo.

**Alivio de la deuda:** De los 37 países menos adelantados que reúnen las condiciones para acogerse al programa de alivio de la deuda de los países pobres muy endeudados, 13 han llevado a cabo con éxito reformas políticas y programas de reducción de pobreza y otros 14 que no han desarrollado una estrategia de reducción de pobreza cumplen ahora los requisitos para comenzar a recibir reducciones en su deuda.

Alianza Mundial

**Frase**

La globalización en sus efectos negativos, producto de la aplicación del modelo neoliberal en nuestros países, limita las posibilidades de desarrollo de todos los seres humanos con equidad, y reta la práctica de valores como la solidaridad, elemento fundamental de la relación y complementariedad de las luchas y sueños de las personas y pueblos. Pese a esto, con los espacios organizativos, recuperamos la solidaridad como una bandera de resistencia.

Movimiento de Mujeres Luchando por la Vida,
Ecuador

## Munduko Aliantza

### Datuak

**Laguntza:** Orain dela hamarkada batzuk, herrialde aberatsek adostu zuten ahaleginduko zirela urtero sarrera nazional gordinaren (SNG) %0,7 garapen-bideko herrialdeei laguntzeko erabiltzen. Europako bost herrialdek baino ez dute bete helburu hori (Danimarka, Luxenburgo, Norvegia, Herbehereak eta Suedia).

**Merkataritza:** Munduko Bankuak zenbatetsi du merkataritzari oztopoak kenduta eta nekazaritza-sektoreari diru-laguntzak emanda garatze-bidean dauden herrialdeek 120.000 milioi dolar eskuratuko dutela.

**Zorra arintzea:** Zor asko dituzten herrialde pobreentzako zorra arintzeko programaren babesa eskatzeko baldintzak betetzen dituzten 37 herrialde pobreenetatik, 13k arrakastaz lortu dute erreforma politikoak eta pobrezia murrizteko programak gauzatzea. Pobrezia murrizteko estrategiarik garatu ez duten gainerako 14 herrialdeek orain betetzen dituzte beren zorrean murrizketak izaten hasteko baldintzak.

Alianza Mundial

**Esaldia**

Globalizazioak, bere ondorio negatiboetan, gure herrialdeetan eredu neoliberala aplikatzearen ondorioz, ekitatez garatzeko aukerak mugatzen dizkio gizakiari, eta desafio egiten dio harremanaren funtsezko elementua eta pertsonen eta herrien borroken eta ametsen osagarria den solidaritatea eta hori bezalako baloreak praktikatzeari. Hala ere, antolaketa-espazioekin, solidaritatea berreskuratzen dugu erresistentzia-bandera gisa.

Bizitzaren alde borrokatzen diren Emakumeen
Mugimendua, Ekuador



## El nuestro

### Misión

Tenemos vocación de sumar voluntades y esfuerzos de personas y organizaciones, del Norte y del Sur, para generar una ciudadanía comprometida con el desarrollo humano y la búsqueda de la justicia.

Para ello, tanto en el Norte como en el Sur, fortalecemos a personas y grupos a través de procesos educativos y de formación, potenciamos las organizaciones sociales en su trabajo de transformación social y buscamos incidir en la definición y control de las políticas públicas y privadas que afectan al desarrollo humano y a la justicia.

**Testimonio**

Me llamo Josefa Mena Villegas y soy campesina.... Empecé a trabajar a los siete u ocho años con mi papá, que era arriero. Yo le ayudaba a sacar el algodón. (...) Trabajábamos mucho porque éramos muy pobres. Nosotros no teníamos casi ni para comer porque no se ganaba casi nada. Así vivimos hasta que llegó la reforma agraria. Ahí recién nos liberamos... se fueron los patrones. ¡Ay! Para nosotros fue un alivio porque ya caminábamos por donde no habíamos caminado antes, ya no teníamos que bajar la cabeza cuando veíamos al patrón: ahora podíamos andar con la cabeza bien alta. Recién fuimos libres. (...) Tras la reforma agraria me ofrecieron trabajo como cocinera en una casa. Así comencé una nueva vida. José Antonio, Juan y Paco, los tres jesuitas trabajadores del CIPCA, me fueron descubriendo un mundo desconocido hasta entonces.

Me enseñaron a leer y a escribir, aunque yo pensaba que no iba a poder. ¡Para mí era bien difícil aprender a leer!

Ahora yo veo clarísimo dónde voy: mi vida ha cambiado del todo y me siento con valor y eso me da muchísima alegría. Siento que he vuelto a nacer. Aprendí a leer y a escribir, crié a mis hijos y ahora sigo criando a mis nietos. Aprendí el oficio de partera y además comencé a trabajar como cocinera. Sé que soy una persona que valgo.

Josefa Mena Villegas,
Perú

## Gurea

### Xedea

Iparraldeko nahiz Hegoaldeko pertsonen eta erakundeen borondate eta esfortzua batzeko bokazioa dugu, gizakiaren garapenarekin eta justiziaren bilaketarekin konprometitutako hiritarrak sortzeko.

Horretarako, Iparraldean nahiz Hegoaldean, pertsonak eta taldeak hezkuntza- eta trebakuntza-prozesuen bidez indartzen ditugu, elkarte sozialak gizartea eraldatzeko lanak egitera bultzatzen ditugu, eta gizateriaren garapenari eta justiziari eragiten dieten politika publiko eta pribatuen definizio eta kontrolean eragina izatea bilatzen dugu.

**Lekukoa**

Josefa Mena Villegas dut izena, eta nekazaria naiz... Zazpi edo zortzi urte nituela hasi nintzen aitarekin lanean. Aita mandazaina zen. Nik kotoia ateratzen laguntzen nion. (...) Lan asko egiten genuen, oso pobreak baikinen. Horrela bizi izan ginen nekazaritza-erreforma iritsi zen arte. Orduan aske bihurtu ginen... nagusiak joan egin ziren. Ene! Guretzat lasaigarria izan zen, jada aurretik ibili gabeko bideetatik baikenbiltzan, jada ez genuen burua jaitsi behar nagusia ikustean: orduan burua tente genuela ibil gintezkeen. Libre ginen.” Nekazaritza-erreformaren ondoren, etxe batean sukaldari-lana eskaini zidaten. Orduan, bizitza berri bat hasi nuen. José Antonio, Juan eta Pacok, CIPCAko hiru jesuita laguntzaileek, ordura arte ezagutzen ez nuen mundua erakutsiz joan zitzaizkidan.

Irakurtzen eta idazten irakatsi zidaten, nik gai izango ez nintzela pentsatu arren. Niretzat oso zaila zen irakurtzen ikastea!

Orain argi ikusten dut nire bidea: nire bizitza guztiz aldatu da eta adorez sentitzen naiz, eta horrek poz handia ematen dit. Berriro jaio naizela sentitzen dut. Irakurtzen eta idazten ikasi nuen, nire seme-alabak hezi nituen eta orain nire bilobak hezten ari naiz. Emagin lanbidea ikasi nuen eta, gainera, sukaldari gisa lanean hasi nintzen. Badakit zenbait gauzetarako balio dudala.

Josefa Mena Villegas,
Peru



## El tuyo

### Cambiando datos

Si quieres cambiar al mundo,
cámbiate a ti mismo.

Mahatma Gandhi

**Frase**

Cuando decimos "la lucha continúa", significa que no es posible detenerse; que el problema que provocó esa lucha, continúa ahí, presente. Claro, es posible y normal el desánimo. Lo que no es posible es que el desánimo se convierta en desencanto y nos inmovilice.

La expresión "la lucha continúa" lo que subraya es la continuidad en la historia. Por eso tenemos que seguir luchando por hacer posible lo que ahora todavía no es posible.

Todo esto es parte de la tarea histórica de redibujar y reconstruir el mundo.

Paulo Freire

## Zurea

### Datuak aldatuz

Mundua aldatu nahi baduzu,
aldatu ezazu zure burua.

Mahatma Gandhi

**Esaldia**

"Borrokak jarraitzen du" esaten dugunean, ezin geldi gaitezkeela esan nahi du; alegia, borroka hori eragin zuen arazoa hor dagoela, agerian. Kasu honetan, etsipena sentitzea posible eta arrunta da. Ezin gerta daitekeena, etsipena desilusio bihurtu eta honek gu geldiaraztea da.

"Borrokak jarraitzen du" esaerak, historiaren jarraipena azpimarratzen du. Horregatik, oraindik posible ez dena posible egiteko borrokan jarraitu behar dugu.

Guzti hau mundua birmarraztu eta berreraikitzeko eginbehar historikoaren parte da.

Paulo Freire



“Los mandalas de los Objetivos de Desarrollo del Milenio” (ODM) es una propuesta para conocer, acercarnos, reflexionar, meditar e implicarnos con los temas que presentan los Objetivos de Desarrollo del Milenio.

“Milurtekoko Garapen Helburuen (MGH) mandalak” izeneko material hau da Milurtekoko Garapen Helburuek aurkezten dituzten gaiak ezagutu, haietara hurbildu, haiei buruzko gogoeta egin, meditatu eta haien partaide izateko proposamena.

www.alboan.org

**Pamplona**
Avenida Barañain 2 • 31011 Pamplona
Tel.: 948 231 302 • Fax: 948 264 308
alboanna@alboan.org

**Bilbao**
Padre Lojendio 2, 2º • 48008 Bilbao
Tel.: 944 151 135 • Fax: 944 161 938
alboanbi@alboan.org

**San Sebastián**
C/ Ronda, 7, 4º I • 20001 San Sebastián
Tel.: 943 275 173 • Fax: 943 320 267
alboangi@alboan.org